

AURREKONTUAK 2013

LABURPENA

AURKIBIDEA

ORRIALDEAK

- Batzordearen diktamena (2012-12-20koa)	1-2
- 2013ko Aurrekontuaren ezaugarri nagusiak	3-5
- Gastuen aurrekontua. Kapitulukako banaketa eta 2012-2013 konparaketak	6-8
- 2013ko Gastuen Batzordekako banaketa	9-10
- Diru-sarreraren aurrekontua. Kapitulukako banaketa eta 2012-2013 konparaketak	11-13
- Inbertsio izarako proiektu nagusiak	14



2013. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.

Alkateak 2013ko aurrekontuen proiektua aurkeztu du, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali du, dokumentua izapidetu dezan.

Horri buruz, hartarako emandako epean, PSE-EE udal taldeak hainbat emendakin aurkeztu ditu, 2013ko aurrekontuen proiektuari dagokionez. Ogasun Batzordean emendakin hauek bozkatu eta gero, PSE-EEren aldeko botoa, EAJ-PNV-ren abstentzioarekin eta BILDU eta ARALAR-eko kontrako botoarekin, ez dira onartu eta, ondorioz, emendakinak plenorako mantentzen dira.

Hortaz, aurkeztutako emendakinak onartu ez direnez, **Udalbatzarrak onartzeko aurkeztu den 2013ko urtealdiko aurrekontu orokorren proiektuak HOGEITA HAMAHIRU MILIOI BOST EHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI MILA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (33.569.096,32 €) kopurua du, eta hor sartuta daude Udalaren beraren udal aurrekontua, HOGEITA BEDERATZI MILIOI ZORTZIEHUN ETA BEDERATZI MILA ETA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA HAMABI ZENTIMO (29.809.888,32€) eta ITURBIDE eta AUKEA erakunde autonomoen aurrekontuak, hurrenez hurren, HIRU MILIOI LAUREHUN ETA BEDERATZI MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HIRU ZENTIMO (3.409.392,83€) eta MILIOI BAT SEI EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI EURO (1.668.257,00€).**

Proiektu hori, kontu-sailak eta aurrekontu horiek betetzeko arauak barne hartzen dituena, aztertu eta gero, Ogasun Batzordeak, BILDU eta ARALAR udal taldeen ordezkarien aldeko botoarekin eta EAJ-PNV eta PSE-EEko udal taldeen ordezkarien kontrako botoarekin, eta batzordeburuaren kalitatezko botoarekin, aldeko txostena aurkeztu dio Udalbatzarrari akordio hau hartu dezan:

1.- Hasiara batean onartzea 2013ko urtealdiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua nahiz ITURBIDE EGOITZA eta AUKEA erakunde autonomoen aurrekontuak, aurrekontu bakoitza betetzeko arauekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

3.- Jende aurrean erakusteko aldi horretan aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik jaso ezean, espedientea behin betiko onartutzat jotzea.

Arrasate, 2012ko abenduaren 20a

BATZORDEBURUA



2013KO AURREKONTUEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Arrasateko Udalaren 2013ko aurrekontua, Udalaren beraren aurrekontuak eta AUKEA zein ITURBIDE erakunde autonomoetako aurrekontuek osatzen dutena, herriko sektore publikoan eragin handia duen krisialdi ekonomikoko marko batean dago. Eragin hori nagusiki nabarmendu da eskuartean ditugun baliabideen eta herritarrek eskatzen dituzten zerbitzu publikoak mantentzeko egin beharreko gastuen arteko desorekan. Horrek guztiak dakar ezinbestean egokitzapenak egiteko beharra.

Udalaren egoera ekonomikoaren eragile nagusiak dira Foru Fondoaren eboluzio negatiboa (Udalaren baliabide nagusia); Udal Legea onartu barik dagoenez, beste erakunde batzuei dagozkien zerbitzuak gure gain hartu behar izana eta beste administrazio batzuetatik jasotzen ditugun diru-laguntzak murriztu izana.

Egoera hau gainditzeko, guztiz aldatu behar dugu gauzak egiteko modua. Garai honetan etengabe eutsi beharko diogu aurrekontuari eta, ezinbestean, egoera ekonomikoari agenda estrategiko batetik helduko diogu, zabalitzen ari zaizkigun erronka garrantzitsuei epe ertain/luzera erantzuteko, baita aldi honetatik instituzio bezala indartuta irteteko ere.

Gastu politiketan lehenetsunak erabilgarri ditugun baliabideen bolumenari egokitzeko modurik eraginkorrena da gastu arruntetan zorrotz jokatzeari, herstura ekonomikoa, inbertsioen aldizkakotasuna eta planifikatutako inbertsio batzuk berriro planteatzea. Hortaz, Gizarte Ongizateko bulego berrietarako obrak bi alditan egingo ditugu; inbertsioa 2013 eta 2014 urteen artean banatuta. San Josepeko urbanizazioa, Udala auzoa eta Obenerreka Jose Luis Iñarra zatia hobetzea ere atzeratu egin dugu, lan hauek bermeaz burutu ahal izan arte.

Krisi garai honetan, erabaki dugu lehenetsuna ematea gizarte eremuari eta, horregatik, aurrekontuen zati garrantzitsu bat bideratuko dugu herritarrek kalitateko gizarte zerbitzuak izan ditzaten. Helburu horrekin lotuta dauden sailak, proiektuak eta ekimenak lehenetsunezkoak izango dira eta, behar izanez gero, kontu-sailak handitu egingo ditugu.

Udal honek konpromisoa hartzen du aurrera egiteko beste gizarte eredu bat eraikitze aldera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna izango duena oinarri. Gauzak horrela, emakumeenganako indarkeriaren aurka dauden programa guztiak mantenduko ditugu.

Herritarren neurria egindako proiektu txikien alde egiten jarraituko dugu. Udal azokari dagokionez, eta oinarrizkoak diren zenbait balore indartzeko asmoz (modu parte-hartzailean 2013ko ekitaldirako herriko merkataritza, elikadura osasuntsua, landa eremua sustatzea, garapen iraunkorreko ereduak eta aisialdi proposamen berriak eskaintzea) gure helburua da azokaren proiektua definitzea eta bideragarritasun plana, finantza plangintza, kudeaketa eredu zein arkitektura diseinua egitea.

Mugikortasunaren esparruari dagokionez, Mugikortasun Planean definitutako neurrien lanketan jarraituko dugu: TAO abian jartzea, bide seinaleak hobetzea, garabi zerbitzuaren



funtzionamendua egokitzea, garraio publikoa bultzatzea eta lehendik dauden bidegorrien zatien loturak hobetzea.

Pertsonal politikan gure erabakia da langile publikoen lan baldintzak mantentzea eta hobetzea: Garapen profesionalaren eta langileek balio publikoak barneratzearen aldekoak gara; are gehiago, langileen artean erakunde honen parte direnaren zentzua indartu nahi dugu, aldaketa proiektuetan beraien laguntza eta parte hartzea sustatuz. Prestakuntza, lanbide karrerako planak eta lan jardueraren ebaluazioa babesten ditugu.

Enplegua Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da. Lanbidek nabarmen murriztu dizkigu datorren urtera begira enplegua sustatzeko programarako zenbatekoak. Egoera honetan, kontratazio berriak egiteko maniobra marjina oso txikia da. Edozelan ere, Garapen Ekonomikoaren sailean norabide berean jarraitzen dugu: urteroko laguntza programa mantentzea, lanpostu berriak dakartzaten enpresa berriak sortzeko eta urte osoan egin beharreko azoka bereziak burutu ahal izateko; Ibai-Arte elkarteari laguntza ekonomikoa emateko akordioa.

Hiri hondakinei dagokienez, gure apustua argia da: jomuga 0 zabor sortzea duen kudeaketa integralaren aldekoa. Debagoieneko gainerako herriei batera, herritarrekin eta inplikaturik dauden gainerako eragile guztiekin batera, hondakinak kudeatzeko sistema iraunkorra eraiki behar dugu. Gutzitzea, Berrerrabiltzea eta Birziklatzea izango dira zutabeak, orain arte zabor moduan tratatu duguna baliabide bihurtzeko.

Ingurumen sailean gure helburua da Kurtzetxiki mendia errekuperatzea, hain hurbil eta hain ezezagun dugun ondarea. Helburu hirukoitza dugu: Natura zaintzea, ganadu aprobetxamendua sustatzea eta aisialdirako erabiltzea.

Euskara eguneroko erabilera bultzatzeko eta herritarrek euskara jakin dezaten bermatzeko, helburu horiekin lotutako sustatze jarduerak gehituko ditugu. Gure babesa eta laguntza emango diegu kultura eta aisialdi ekitaldi nagusiei, bereziki herriko taldeek egindakoei.

Hezkuntza bermatu beharreko eskubide bat da, naiz eta une honetan baliabide eskasia izan, kalitatea hobetzearen alde egingo dugu. Ikaskuntza eta arreta laguntzeko, hezkuntza zentroentzako udal programen eskaintza mantenduko dugu.

Kirolaren eremuan gure apustua da aisialdiko kirola, osasunerako kirol jarduerak eta eskola kirola sustatzea. Gure erantzukizuna da egon dauden instalazioak eta ekipamenduak mantentzea, horietaz gozatu eta horiek aprobetxatzeko. Gure herriko taldeek gure laguntza izango dute.

Jakin dakigu tentuz eta arduraz jardun behar dugula, seguruena ez baitira gehituko diru-kontuak eta finantzak datozen urteotan. Gastuari eustean oinarritutako politika bat ari gara markatzen, beti ere lehentasunak eta ekonomia-finantza kudeaketa eraginkor eta iraunkorra aintzat harturik, bai aurtengo ekitaldiko aurrekontuei begira, baita etorri datozen aurrekontuetarako ere.

Azken batean, Udala mugitu behar den koordenada ekonomikoak nabarmen aldatu ezean, **hurrengo urteko erronka izan behar da gaur egun herritarrari eskaintzen dizkion zerbitzuen kalitatea mantentzen saiatzea**, murrizketarik gabe, baina kostuak kontrolatu/gutzitzen saiatuta. Ematen du argi dagoela behartuta gaudela **zorroztasun**



irizpideak aplikatzen, baina justizia sozialeko irizpideak ere bai, gizarte egoera ahulenean dauden taldeak diskriminatu eta lehenetsiz. Zalantzarik gabe, hori da udaleko gobernu taldeak 2013ko aurrekontua egiteko orduan gogoan hartu dituen printzipioetako bat.

Lehentasunen eta bultzatu beharreko helburuen programa adierazpen honetatik abiatuz, 2013ko aurrekontuaren kopuru nagusiak apur bat gehiago garatzen saiatuko gara.

Alde kuantitatiboari dagokionez, hauxe aipa daiteke:

Arrasateko Udalaren aurrekontuak eta elkarte autonomoen aurrekontuen kopuruak ondorengoak dira:

Udalaren aurrekontua	29.809.888,32 euro
AUKEAren aurrekontua	1.668.257,00 euro
Iturbide Egoitzaren aurrekontua	3.409.392,83 euro

Aurrekontu Orokor finkatua edo hiru aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoei ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **33.569.096,32 €**.

Zenbateko horiek alderatuz gero 2012rako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau ikusi dezakegu:

ERAKUNDEA	AURREK 2013	AURREK 2012	ALDAERA	▲ 2013/2012
Udala	29.809,89	31.162,83	-1.352,94	-4,34%
Aukea	1.668,26	1.614,41	+53,85	+3,34%
Iturbide	3.409,39	3.333,76	+75,63	+2,27%
Aurrek. Orok.	33.569,10	34.884,55	-1.315,45	-3,77%



Gastuen atalean, Udalaren aurrekontua aztertzen hasiko gara.

GASTUEN AURREKONTUA - 2013

2013ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 29.809.888,32 euro, eta %4,34ko jaitsiera du 2012ko aurrekontuaren aldean.

Aurreko ekitaldiari buruz 2013ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa aztertu ondoren, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2013KO AURREK. – 2012KO HASIERAKO AURREK.

Kapitulua	AURRE K 2012	% GUZ/	AURRE K 2013	% GUZ/	Aldea	▲ 13/12
I Pertsonal gastuak	9.678,1	31,06%	9.201,3	30,87%	-476,8	-4,93%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	8.857,2	28,42%	8.813,1	29,56%	-44,10	-0,50%
III Interesak	178,5	0,57%	86,3	0,29%	-92,20	-51,65%
IV Transfer. Korront.	5.695,9	18,28%	5.704,8	19,14%	8,90	0,16%
VI Inbertsioak	3.313,6	10,63%	2.699,9	9,06%	-613,70	-18,52%
VII Kapital Transf.	821,4	2,64%	785	2,63%	-36,4	-4,43%
VIII Finan. Akt. Aldak.	209,3	0,67%	209,3	0,70%	0,00	0,00%
IX Mailegu amortiz.	2.408,8	7,73%	2310,1	7,75%	-98,70	-4,10%
GUZTIRA	31.162,8	100%	29.809,8	100%	-1.353	-4,34%

(Mila eurotan adierazitako kopuruak)

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen Udalak 2013an:

- **30,87 €** erabili ditugu pertsonal gastuei aurre egiteko, eta hor sartzen dira Udalean egitekoak betetzeko liberaturik dauden udalkideen ordainketak.

- **29,56 €** behar dugu udal zerbitzuen funtzionamendutik sortzen diren gastu arruntei erantzuteko.


- **8,04 €** dira banketxeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (2009ko UFFFren saldo negatiboa) hartutako konpromisoak betetzeko (maileguen interesak eta amortizazioak).

- **19,14 €** dira transferentzia arruntak edo diru-laguntzak finantzatzeko; horietatik **12,10** euro dira udalen arteko zerbitzuen kuotak, AUKEAren eta Iturbide Egoitzaren defizitak (azken horiek berez udal zerbitzuak dira).




- **9,06 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.
- **2,63 €** dira **beste administrazio edo erakunde batzuek** egindako **inbertsioak** diruz lagundu edo **elkarrekin finantzatzeko**.
- **0,70 €** erabiltzen da **langileei aurrerakin itzulgarriak** emateko (diru-sarreraren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko**.

Honekin batera doazen grafikoetan 2013ko gastuen aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa ikusi dezakegu, 2012ko aurrekontuaren aldean, eta 2013ko gastuaren portzentaje banaketa, kapitulu ekonomikoko sailkapenaren arabera.





GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU -2013KO AURREKONTUA






2013 AURREKONTUAREN GASTUAREN BANAKETA BATZORDEKA

Bestalde, 2013ko aurrekontuen gastuaren banaketa arloka edo batzordeka egiten badugu, koadro hau lortzen dugu:

BATZORDEA	2013	%
01 – Gobernu organoak	736,43	2,47%
02 – Kultura	2.170,08	7,28%
03 – Zor Finantzieroa	2.396,42	8,04%
04 – Ongizatea	2.473,78	8,30%
05 – Hirigintza	1.610,96	5,40%
06 – Pertsonala	2.101,23	7,05%
07 – Ingurumena	860,44	2,89%
08 – Zerbitzuak	12.270,85	41,16%
09 – Hezkuntza	746,67	2,50%
10 – Euskara	1.154,66	3,87%
11 – Gazteria	640,7	2,1%
12 – Emakumea	224,31	0,75%
13 – Ogasuna	731,01	2,47%
14 – Enplegua	384,11	1,29%
15 - Iturbide	292,89	0,98%
16 - Aukea	1.010,35	3,39%
GUZTIRA	29.809,89	100%



GASTUAREN BANAKETA SAILKA - 2013KO AURREKONTUA





DIRU-SARREREN AURREKONTUA - 2013



Aurrekontua da 29.809.888,32 euro eta 2012ko aurrekontuaren aldean %4,3ko jaitsiera du.

Aztertzen badugu eboluzioa 2012ko aurrekontuaren kapituluz kapitulu, 2012ko aurrekontuaren aldean, konparazio koadro hau lortuko dugu:

2013-2012 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUKA

(mila eurotan)

KAPITULUA	AURREK 2013	%/GUZ.	AURREK 2012	% GUZ.	ALDEA 2013-2012	▲ 2013/12
I - ZUZENEKO ZERGAZ	7.081,7	23,76%	6.696,5	21,49%	385,2	5,75%
II - ZEHARKAKO ZERGAZ	519,3	1,74%	719,3	2,31%	-200	-27,80%
III TASAK ETA PREZIOAK	6.205,2	20,82%	6.083,6	19,52%	121,6	2%
IV TRANSFER. ARRUNT.	12.882	43,21%	13.286,1	42,63%	-404,1	-3,04%
V ONDARE SARRERAK	238	0,80%	243,5	0,78%	-5,5	-2,26%
VI ONDAREA SALTZEA	286,2	0,96%	659,3	2,12%	-373,1	-56,59%
VII KAPITAL TRANSF.	241,7	0,81%	245,1	0,79%	-3,4	-1,39%
VIII FINAN.AKT. ALDAK.	90	0,30%	90	0,29%	0	0%
IX FINAN.PASIB. ALDAK.	2.265,7	7,60%	3.139,4	10,07%	-873,7	-27,83%
GUZTIRA	29.809,8	100%	31.162,8	100%	-1.353	-4,34%





Azkenik, adierazi behar dugu 2013an Udalak sartuko duen 100 euro bakoitzeko:

- **46,32** datoz **udal fiskalitate** (diru-sarreraren I, II eta III. kapituluak), horietatik hirigintza jarduerak (EOZ) sortzen du 1,74 bakarrik.
- **43,21** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru-laguntza arruntetik**, horietatik 39,8 datoz **Udalak Finantzatzeko Foru Fondotik**.
- **0,8** lortzen dira **ondare diru-sarreretatik**.
- **0,96**; Udalak espero du lortzea **ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik**.
- **0,81** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru-laguntzetatik**
- **0,3** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **7,6** lortuko lirateke “teorikoki” **zorpetze** bidez, hau da, sinatu beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, espero dugun azkenean kapitulu honetako garrantzia askoz txikiagoa izatea.



2013KO AURREKONTUETAN AURREIKUSITAKO INBERTSIO NAGUSIAK

IZENA	DOTAZIOA	OHARRAK
Zerrajeran gizarte ongizate sailerako bulego berriak	375.000 €	Proiektu osoaran %50a. Gainontzeko %50a 2014ko aurrekontuaren kontura.
Ondare ondasunak erostea	210.000 €	Makatzenan hirizgarritasun ekimenak ahalbidetzeko
Argiteri publikoa, ur sareak, bide publikoen urbanizazioak eta asfaltatuak	415.000 €	
Zarugaldeko mendi hegalkak	104.000 €	2012-2013ko aurrekontuen artean finantzatu beharrekoa. Kostu osoa 254.000€.
Monterroiko eskenatoki berria	140.000 €	2012-2013ko aurrekontuen artean finantzatu beharrekoa. Kostu osoa 200.000€.
Trafikoaren ikerketa eta TAOren ezarpenak, bide seinalizazioen inbertsioak	220.000 €	
Hezkuntzako inbertsioak	150.000 €	
Deba Goienerako Mankomunitateak egin behar dituen inbertsioetarako udal ekarpenak	274.434,55 €	
Gipuzkoako Ur Patzuergoak egin behar dituen inbertsioetarako udal ekarpenak	468.559 €	
Udalak egin beharreko gainontzeko inbertsioak	1.085.955 €	
Beste elkarte batzuk egin beharreko inbertsioetarako udalaren gainontzeko ekarpenak	42.000 €	
INBERTSIO IZAERAKO KONTU SAILA GUZTIEN BATUKETA	3.484.948,55 €	



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN